

# AMAIERA - CLAUSURA

Joseba Agirreazkuenaga\*

---

---

Cuadernos de Sección. Ciencias Naturales 11. (1995) p. 133-135  
ISBN: 84-89516-01-4  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

---

\* Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea.

Egun bi hauetan, dibertsitatea, aniztasuna, izan dugu hitzik aipatuena. Naturaren eta bereziki basogintzan aniztasunaren abantaila eta premia azpimarratu da. Eta Eusko Ikaskuntza moduko elkarte zientifiko batentzat pozgarria da. Azken batean, 1918.ean Eusko Ikaskuntza fundatu zenean, aniztasunaren eta berezitasunaren eraginak bultzaturik hasi zen. Kultur eremuan, Eusko Ikaskuntzak aniztasuna aldarrikatzen zuen eta gaurregunean ere horren islada dugu, barnetik zein gizartearen baitan. Premiazkoa dugu etorkizuneko gizarteetan dibertsitatea lantzea, hizkuntz eta kultur arloan alegia. Eta horretarako bildu gara hainbat bazkide Eusko Ikaskuntzan. Eta aukera duzue bazkide ez zaretenok proiektu eta egitasmo honetan partaidetza hartzea bazkide legez.

Eusko Ikaskuntza fundatu zen urtean, lehen kongresuan hain zuzen ere, basogintzaren gaia gogoan egon zen. Octavio Elorrieta jaunak, Bermeon sinaturiko hitzaldi jakingarria erakutsi zuen Oñatin 1918.ean, "La riqueza forestal e industrial derivadas" izenburupean eta ondoren Kongresuko aktetan agitaratu zuen.

Mende hasieran Euskal Herriko mendiak, zuhaitz bako mendiak ziren, batez ere Bizkaia eta Gizpuzkoan. Txostenean O. Elorrietak adierazten zuen "la provincia de Vizcaya tiene tres quintas partes de su suelo improductivas". Basogintza berria indartzea proposatu zuen, industria berriak bertatik eragiteko eta beraz produktibista ikuspegiari oinarrituriko garapen ekonomikoaren alde agiri da. Ez da harrizkoa, Bizkaia eta Euskal Herria lehen aldiko iraultza industrial izugarrian murgildurik baitzegoen. Bere ikuspegi garai eta giro batekoa argi eta garbi adierazten zuen. Beharbada gaurregunean ere ez dira horrelako adierazpenik falta, baina basoak kultur aniztasunaren ikuspegitik, luraren globaltasunean balore barriak dituela ikasten ari gara. Dena dela aintzakotzat hartzekoa dela uste dut 1918.ean O. Elorrietak basogintza barrirako proposatzen zuen konklusioa : "Hágase la repoblación mediante un plan anterior en cada zona o monte... estúdiase a la vez y desde un principio la red de caminos y futuras vías de saca... y por último, téngase en cuenta que este país de vegetación tan exuberante, lo es también, de enfermedades criptogámicas y de insectos. Por ello, húyase de las masas arboladas puras y uniformes. Las repoblaciones deben hacerse por masas mezcladas y de todos modos interrumpidas por calles de 10 a 20 metros de ancho, llenas de especies de hoja plana y de rápidos crecimientos, como acacias, fresnos, plátanos etc., que servirán de fajas aisladoras y evitarán en cierto modo la fácil propagación de las enfermedades, haciendo más fácil su extinción." (*Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao, 1919-1920. p. 255)

Basogintzaren uniformetasun eta monokultiboaren aurkako manifestua dirudi eta aspaldian esandakoa izan arren, beste arlo askotan bezalaxe, gaurkotasan beterikoa dugu eta beraz aintzakotzat hartzekoa etorkizun hobe baterako.

Eskerrik asko hona hurbiltzeko astia hartu duzuen guztiontzat eta jakin ezazue aurrerantzean ere Eusko Ikaskuntzan, bereziki natur zientzien sailean, aukera egongo dela honelako hitzaldi eta eztabaida xorta antolatzeko.